



TOLOSAKO
UDALA

2025IGBA0029

TOKIKO GOBERNU BATZARRA

2025.09.30

Alkatea:
Angel Martinez de Rituerto Arregui

Bertaratutako zinegotziak:
Ander Figuerido Zubiria
Cristina Pelaez Errazquin

Tolosako udaletxean, bi mila eta hogeita bosteko irailaren hogeita hamarrean, 10:00etan, bigarrenengo deialdian, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboan aipatutako zinegotziak agertu dira, gai-zerrenda hau aztertzeko:

Ez dira bertaratu:
Miren Yosune Sanz Vidal
Goiuri Eceiza Arandia

1. Akta hau onartzea:
2025eko irailaren 23koa.

Udal idazkaria:
Sara Berasategui Fuertes

2. Onartzea Tolosako udalaren eta Tolosaldea Garatzenen artean sinatutako 2025/18 zenbakidun hitzarmenaren II. dokumentu osagarria sinatzea.

Kontu-hartzaile akzidentala:
Paulino Alonso Eraso

3. Onartzea Tolosako udalerriko zenbait bide publikotan ibilgailuen aparkatzea kontrolatzea, mugatzea eta antolatzea (TAO) zerbitzu-kontratuaren adjudikazioa.

4. Hasierako onespena ematea, hala badagokio, «4. Guadalupe-Donostia etorbidea» esparruko «4.2 autobiko irla» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketari.

5. Dekretu hauen berri ematea:

2025/2347 Dekretua: 2025/67 faktura zerrenda.

2025/2346 Dekretua: 2025/68 faktura zerrenda.

ESKU7ff60ba3-fba5-4bfd-adca-54e74e5ae194



**2025/2345 Dekretua: 2025/69 faktura
zerrenda.**

**2024/1933 Dekretua: 2025/70 faktura
zerrenda.**

**2025/884 Dekretua: 2025/71 faktura
zerrenda.**

1. AKTA HAU ONARTZEA: 2025EKO UZTAILAREN 23KOA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, izenburuan aipatutako akta aztertu dute.

Aho batez onartu dute.

2. ONARTZEA TOLOSAKO UDALAREN ETA TOLOSALDEA GARATZENEN ARTEAN SINATUTAKO 2025/18 ZENBAKIDUN HITZARMENAREN II. DOKUMENTU OSAGARRIA SINATZEA.

IKUSIRIK

LEHENA.- Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, 2022ko abenduaren 14ko Konferentzia Sektorialaren erabakiari jarraiki, 1.980.400 euro eman zizkiola Tolosaldea Garatzen erakundeari, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Mekanismoa (BEEM) izeneko aurrekontu-programaren kontura (1228 programa, 12281 azpiprograma), Tolosaldeko Jasangarritasun Turistikoko Plana finantzatzeko.

BIGARRENA.- Tolosaldea Garatzen eta Tolosako Udalak lankidetzatza-hitzarmen bat sinatu zutela Tolosaldeko Turismo Jasangarritasuneko Planaren jarduketak Tolosako udalerrian gauzatzeko, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan, Batasunaren funtsek finantzatuta. Europa – Next Generation EU.

HIRUGARRENA.- Tolosan garatu beharreko Tolosaldeko Jasangarritasun Turistikoko Planaren 2. ardatzean (1. jarduera) aurreikusitako ekintza gauzatu nahi dela eta, Tolosaldea oinez eta bizikletaz, Tolosaldea Garatzenek eta Tolosako Udalak erabaki zuten beharrezkoa zela sinatutako lankidetzatza-hitzarmenaren bigarren dokumentu osagarria osatu eta bi alderdiek sinatzea.



LAUGARRENA.- 2025eko irailaren 24ean, Jasangarritasuna, ingurumena, landa garapena eta trantsizio energetikoa azpisaileko teknikariak aldeko txosten teknikoa egin zuela.

BOSGARRENA.- 2025eko irailaren 24an, Idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondarea Azpisaileko Administrazio Orokorreko Teknikariak ondorengo proposamena egin zuela txosten juridikoan:

«LEHENENGOA.- Tolosaldea Garatzen SAre (IFK: A20500229) eta Tolosako Udalaren (IFK: P2007600F) artean sinatutako lankidetzaz hitzarmenaren 2. dokumentu osagarria (I. ERANSKINA) onartzeko eta sinatzeko txostena egitea, Kontu Hartzailetza Azpisaileak egingo duen txosten teknikoaren proposamenaren baldintzatuta. Horretaz gain, sinatutako lankidetzaz hitzarmenean, 2. dokumentu osagarrian eta txosten honetan zein txosten teknikoan jasotzen diren baldintzak bete beharko dira.

BIGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzarrari aipatutako 2. dokumentu osagarria onartzeko eta hura egikaritzeko ebazpen proposamena egitea.

HIRUGARRENA.- Erabaki hau Kontu Hartzailetza eta Diruzaintza Sailari, eta Jasangarritasuna, Ingurumena, Landa Garapena eta Trantsizio Energetikoa Azpisaileari jakinaraztea».

SEIGARRENA.- 2025eko irailaren 26an, Kontu-hartzaileak ondorengo ondorioak jaso zituela fiskalizazio txostenean:

«Prozeduraren fase honetan, erreferentziako espedientea fiskalizatzen da honako emaitza honekin:

ALDEKOA

OHARRA Dokumentu osagarriaren 3. puntuan komeniko litzateke zehaztea Tolosako Udalaren ekarpena gehienez ere 2.716,64 eurokoa izango dela».



KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Prozedura honetan ondorengo araudia da aplikatu beharrekoa:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen (aurrerantzean, 7/1985 Legea).
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, Informazio Publikoa Eskuratzeko Bideari eta Gobernu Onari buruzkoa (aurrerantzean, 19/2013 Legea).
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena (aurrerantzean, 39/2015 Legea).
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena (aurrerantzean, 40/2015 Legea).
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeena (aurrerantzean, 2/2016 Legea).

BIGARRENA.- Lankidetz hitzarmenari atxiki nahi zaion 2. dokumentu osagarria da izapidetza honetan onartu nahi dena. Beraz, lankidetz hitzarmenean jasotako betebeharrak eta helburuez gain, 2. dokumentu osagarri horretan jasotzen diren betebeharrak eta helburu espezifikoak ere bete beharko dituzte bi alderdiek.

Horien artean dago, besteak beste, Hitzarmen Markoaren hirugarren klausulako 1.f) atalean aipatzen den Tolosako Udalak ordaindu beharreko gehieneko zenbatekoa. Kasu honetan, aurrekontua 27.166,37 eurokoa izango da, kopuru horren % 10a ordaintzea izango delarik gehienez ere Tolosako Udalak bere gain hartuko duen konpromiso ekonomikoa, hau da, **2.716,64 euro BEZ barne**.

HIRUGARRENA.- 7/1985 Legearen 21.1 artikulua dioenaren arabera, Alkatea izango da organo eskuduna lankidetz hitzarmenaren 2. dokumentu osagarria onartzeko:

«s) Legeek berariaz aitortzen dizkioten gainerakoak, eta Estatuko legediak edota autonomia erkidegoetakoak udalerriri esleitutakoak izanik udaleko beste organo batzuei egotzi ez dizkietenak».

Hala ere, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 zenbakidun Alkatetza Dekretuan Alkateak zenbait ahalmen eskuordetzen dizkio Tokiko Gobernu Batzarrari eta horien artean dago ondorengoak:



«5. Lankidetza-hitzarmenak:

Beste administrazioekin edo pertsona fisiko eta juridikoekin lankidetza-hitzarmenak onartzea, ondoko legeen aplikazio-eremutik kanpo geratzen direnak: 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzei buruzkoa, eta horiek garatzeko arauak».

Beraz, Tokiko Gobernu Batzarra izango da lankidetza-hitzarmenaren 2. dokumentu osagarria onartzeko organo eskuduna.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosaldea Garatzen SAren (IFK: A20500229) eta Tolosako Udalaren (IFK: P2007600F) artean sinatutako lankidetza-hitzarmenaren 2. dokumentu osagarria (I. eranskina) onartzea.

BIGARRENA.- Tokiko Gobernu Batzarrak hartuko duen erabakiaren berri Kontuhartzailletza eta Diruzaintza Sailari, eta Jasangarritasuna, Ingurumena, Landa Garapena eta Trantsizio Energetikoa Azpisailari jakinaraztea.

**3. ONARTZEA TOLOSAKO
UDALERRIKO ZENBAIT BIDE
PUBLIKOTAN IBILGAILUEN
APARKATZEA KONTROLATZEA,
MUGATZEA ETA ANTOLATZEA (TAO)
ZERBITZU-KONTRATUAREN
ADJUDIKAZIOA.**

AURREKARIAK

LEHENA.- Unitate sustatzaileko teknikariak igorritako txostenean, aipatutako xedea duen kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman

**3. APROBAR LA ADJUDICACIÓN DEL
CONTRATO DEL SERVICIO DEL
CONTROL, DELIMITACIÓN Y
ORDENACIÓN DEL ESTACIONAMIENTO
DE VEHÍCULOS (OTA) EN
DETERMINADAS VÍAS PÚBLICAS DEL
MUNICIPIO DE TOLOSA.**

ANTECEDENTES

PRIMERO.- En el informe remitido por el técnico de la unidad promotora, se expone el estado del contrato que tiene por objeto y se inicia el procedimiento de contratación. En ella solicita para la práctica el pliego de



zion. Bertan, jardunbidea burutu ahal izateko, honako hauek eskatu zituen: Administrazio baldintza partikularren plegua; preskripzio tekniko partikularren plegua; baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena; kontratua justifikatzeko memoria; eta idazkariaren eta kontuhartzailearen txostenak.

cláusulas administrativas particulares, el pliego de prescripciones técnicas particulares, el informe de insuficiencia de medios, la memoria justificativa del contrato y los informes del secretario y del Interventor.

2025ko ekainaren 13an Europar batasuneko Aldizkari Ofizialean (DO S: 113/2025 385374-2025) argitaratu zen iragarkia.

El anuncio fue publicado en el Diario Oficial de la Unión Europea el 13 de junio de 2025 (DO S: 113/2025 385374-2025).

BIGARRENA.- 2025ko maiatzaren 27ko Tokiko Gobernu Batzarrak, Tolosako udalerriko zenbait bide publikotan ibilgailuen aparkatzea kontrolatzea, mugatzea eta antolatzea (TAO) zerbitzu-kontratuaren espedientea onartu zen eta hasiera eman zion lizitazioari.

SEGUNDO.- La Junta de Gobierno Local de 27 de mayo de 2025 aprobó el expediente de contrato de servicios para el control, limitación y ordenación del estacionamiento de vehículos (OTA) en determinadas vías públicas del municipio de Tolosa y dio inicio a la licitación.

HIRUGARRENA.- Proposamenak aurkezteko epean, GERTEK, SOCIEDAD DE GESTIÓN Y SERVICIOS, S.A. (A95158895) enpresak aurkeztu zuen proposamena.

TERCERO.- En el plazo de presentación de proposiciones, GERTEK, SOCIEDAD DE GESTIÓN Y SERVICIOS, S.A. (A95158895) presentó la propuesta.

LAUGARRENA.- Behin izapidetze guztia legearen arabera egin eta gero, 2025ko irailaren 19an, kontratazio-mahaiak proposatu zion kontratazio-organoari erreferentzian aipatutako kontratua GERTEK, SOCIEDAD DE GESTIÓN Y SERVICIOS, S.A. (A95158895) enpresari adjudikatzea honako baldintza nagusi hauetan:

CUARTO.- Una vez realizada toda la tramitación conforme a la legalidad, con fecha 19 de septiembre de 2025, la Mesa de Contratación propone al órgano de contratación el contrato referenciado en la referencia GERTEK, SOCIEDAD DE GESTIÓN Y SERVICIOS, S.A. Adjudicar a la empresa (A95158895) las siguientes condiciones generales:



Prezioa urtean: 541.189 euro, eta horri BEZagatik 113.649,69 euro dagokio. Eskaintza, guztira, 654.838,69 eurokoa da.

Precio anual: 541.189 euros, correspondiente al IVA 113.649,69 euros. La oferta total asciende a 654.838,69 euros.

Ekikaritze epea: Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste urtebetez luzatzeko aukerarekin.

Plazo de ejecución: El contrato tendrá una duración de un año, prorrogable por un año más.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

LEHENA.- Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontutan; SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere.

1. Serán competencia de los alcaldes y presidentes de las entidades locales, en su condición de órganos de contratación, los contratos de obras, de suministro, de servicios, de concesión de obras, de concesión de servicios y los contratos administrativos especiales cuyo valor estimado no exceda del 10 por ciento de los recursos ordinarios del presupuesto y, en ningún caso, de los seis millones de euros, así como, en el caso de los contratos plurianuales, cuando su duración no exceda de cuatro años, incluidas las eventuales prórrogas, y, en todo caso, cuando el importe acumulado de todas las anualidades no supere el 10 por 100 de los recursos ordinarios del primer ejercicio ni los seis millones de euros.

FUNDAMENTOS DE DERECHO

PRIMERO.- Para la determinación del órgano de contratación se tendrán en cuenta las disposiciones que contengan las normas específicas aplicables a las Entidades Locales en materia de contratación, contenidas en el apartado 1 de la Disposición Adicional Segunda de la LCSP.

1. Serán competencia de los alcaldes y presidentes de las entidades locales, en su condición de órganos de contratación, los contratos de obras, de suministro, de servicios, de concesión de obras, de concesión de servicios y los contratos administrativos especiales cuyo valor estimado no exceda del 10 por ciento de los recursos ordinarios del presupuesto y, en ningún caso, de los seis millones de euros, así como, en el caso de los contratos plurianuales, cuando su duración no exceda de cuatro años, incluidas las eventuales prórrogas, y, en todo caso, cuando el importe acumulado de todas las anualidades no supere el 10 por 100 de los recursos ordinarios del primer ejercicio ni los seis millones de euros.



2. Será competencia del Pleno, como órgano de contratación, la celebración de los contratos a que se refiere el apartado anterior cuando por su validez o duración no sea competencia del Alcalde o Presidente de la Entidad Local conforme a lo dispuesto en el apartado anterior. Asimismo, corresponde al Pleno la aprobación de los pliegos de cláusulas administrativas generales a que se refiere el artículo 121 de esta Ley.

2. Será competencia del Pleno, como órgano de contratación, la celebración de los contratos a que se refiere el apartado anterior cuando por su validez o duración no sea competencia del Alcalde o Presidente de la Entidad Local conforme a lo dispuesto en el apartado anterior. Asimismo, corresponde al Pleno la aprobación de los pliegos de cláusulas administrativas generales a que se refiere el artículo 121 de esta Ley.

Kasu honetan, kontratuaren balio zenbatetsia 1.277.590,27 eurokoa denez, aipatutako aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10 (3.262.690 euro) baino gutxiago da; hortaz, alkate-lehendakaria da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna. Horiek horrela, alkate-lehendakariak 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.3 artikuluan xedatutakoan oinarrituz, 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 alkatetzaren dekretuaren bitartez erabaki zuen 600.000 eurotik gorako eta Udalaren aurrekontuko baliabide arrunten ehuneko 10a arteko balio zenbatetsia duten kontratazioetan, alkate-lehendakariari kontratazio-organogisa ematen dizkion eskumenak Tokiko Gobernu Batzarrean eskuordetzea. Horiek horrela, **Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarra da organo eskuduna.**

En este caso, dado que el valor estimado del contrato es de 1.277.590,27 euros, es inferior al 10 por ciento (3.262.690 euros) de los recursos ordinarios del citado presupuesto, por lo que el órgano competente para aprobar esta contratación es el Alcalde-Presidente. Así, el Alcalde-Presidente, en base a lo dispuesto en el artículo 21.3 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, mediante Decreto de Alcaldía 2023/1707, de 3 de julio, acordó la delegación en la Junta de Gobierno Local de las competencias que atribuye al Alcalde-Presidente como órgano de contratación en las contrataciones cuyo valor estimado sea superior a 600.000 euros y hasta el 10 por ciento de los recursos ordinarios del Presupuesto del Ayuntamiento. **Por todo ello, el órgano competente es la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Tolosa.**

Aipatu behar da kontratazio-organoi dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190.eta

Debe señalarse que corresponde al órgano de contratación, entre otros, la adjudicación del contrato, la interpretación del mismo, la resolución de las dudas que puedan surgir en el mismo, la modificación del contrato por razones de utilidad pública, la resolución del mismo y la determinación de sus efectos, todo ello de conformidad con



191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.

los artículos 190 y 191 de la LCSP y con los límites, condiciones y efectos establecidos en su Reglamento General.

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

Por todo lo expuesto, y analizada la propuesta realizada por el técnico municipal, esta Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades conferidas por el Sr. Alcalde,

ERABAKIDU

ACUERDA

LEHENA.- Lizitazio-egintzaren baliozkotasuna deklaratzeko.

PRIMERO.- Declarar la validez del acto de licitación

BIGARRENA.- GERTEK, SOCIEDAD DE GESTIÓN Y SERVICIOS, S.A. (A95158895) enpresari adjudikatzea, honako baldintzetan:

SEGUNDA.- Adjudicar el contrato de referencia a la empresa GERTEK, SOCIEDAD DE GESTIÓN Y SERVICIOS, S.A. (A95158895) en las siguientes condiciones:

Prezioa: 541.189 euroko prezioa urte baterako duen eskaintza aurkeztu du, eta horri BEZagatik 113.649,69 euro dagokio. Eskaintza, guztira, 654.838,69 eurokoa da.

Precio: 541.189 euros para un año, al que corresponde por IVA la cuantía de 113.649,69 euros, totalizándose la oferta en 654.838,69 euros.

Kontratuak urtebeteko iraupena izango du, beste urtebetez luzatzeko aukerarekin.

La duración del contrato será de un año, con posibilidad de prorrogarlo por otro año más.

HIRUGARRENA.- 654.838,69 euroko gastua, udal-aurrekontuko 0400.227.07.133.10 partidaren kontura izatea.

TERCERO.- Disponer el gasto de 654.838,69 euros con cargo a la partida 0400.227.07.133.10 del presupuesto municipal.

LAUGARRENA.- Ebazpen honen berri ematea Kontuhartzailletza eta Diruzaintza Arloari, dagokion kontabilitate-eragiketa egin dezan

CUARTO.- Dar cuenta de la presente resolución al Área de Intervención y Tesorería a los efectos de realizar la operación contable que proceda.



BOSGARRENA.- Asier Moreno Yanci, Udaltzaingoa erabakia jakinaraztea, izendatzea kontratuaren arduradun.

QUINTO.- Designar al responsable del contrato D. Asier Moreno Yanci, el oficial jefe de la Policía Municipal.

SEIGARRENA.- Adjudikazioa, enpresa adjudikaziodunari jakinaraztea.

SEXTO.- Notificar la adjudicación a la empresa adjudicataria.

ZAZPIGARRENA.- Ebazpena, Euskadiko Kontratazailearen Profilean argitaratzea.

SÉPTIMO.- Publicar la resolución en el Perfil de Contratante de Euskadi.

ZORTZIGARRENA.- Zentzu honetan hartutako erabakia jakinaraztea, Hirigintza Sailari eta Idazkaritza Orokorra, Administrazioaren Modernizazioa, Kontratazioa eta Ondare Azpisailari.

OCTAVO.- Dar traslado del acuerdo adoptado en este sentido al Área de Seguridad Ciudadana y Policía Municipal, Modernización de la Administración, Contratación y Patrimonio.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. SPKLren 44.5 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, jarduketak hau aipatutako artikuluan errekurtsu berezi baten bidez aurkaratu daitezkeen jarduerak direnez, ez da administrazio-errekurtsu arruntik jarriko. Horrela, erabakiaren aurka honako errekurtsu hauek jarri ahal izango dira:

La presente resolución es firme y pone fin a la vía administrativa. De conformidad con lo dispuesto en el artículo 44.5 LCSP, por tratarse de una actuación mencionada en el citado artículo como susceptible de ser impugnada mediante recurso especial, no procederá la interposición de recursos administrativos ordinarios. Por ello, contra el acuerdo podrán interponerse los siguientes recursos:

Kontratazio-arloko errekurtsu berezia, SPKLren 44. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera.

Recurso especial en materia de contratación, conforme a lo dispuesto en el artículo 44 y siguientes LCSP.

Bestela, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkezteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtsu hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

En caso contrario, el interesado podrá interponer recurso contencioso-administrativo en el plazo de dos meses a contar desde el día siguiente al de la recepción de la notificación de la presente resolución. Dicho recurso deberá presentarse ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San



Sebastián.

Interesdunari legearen arabera jakinaraz Notifíquese en forma legal al interesado.
bekio.

4. HASIERAKO ONESPENA EMATEA, HALA BADAGOKIO, «4. GUADALUPE-DONOSTIA ETORBIDEA» ESPARRUKO «4.2 AUTOBIAKO IRLA» AZPIESPARRUKO BIRPARTZELAZIO-PROIEKTUAREN LEHEN ALDAKETARI.

IKUSIRIK

LEHENA.- Tolosako HAPOko «4.2 Autobiako Irla» azpiesparruko Kontzertazio Hitzarmena behin betikoz onartu zela 2011ko apirilaren 19an. (B.5.1./2011/0005 espediente).

BIGARRENA.- Tolosako HAPOko «4.2 Autobiako Irla» azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Testu Bategina behin betikoz onartu zela 2012ko irailaren 25ean. (B.5.1./2012/0001 espediente).

HIRUGARRENA.- «4. Guadalupe-Donostia etorbidea» esparruko «4.2 Autobiako Irla» azpiesparruko **birpartzelazio-proiektuaren** espedienteari (B.5.1./4.2/2012/0002 espediente zk.) dagozkion **aurrekariak**:

Tokiko Gobernu Batzarrek, 2012ko urriaren 31n, behin betiko onespena eman zion «4.2 Autobiako Irla» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuari eta, 2012ko azaroaren 9ko 214 zenbakidun GAOn eman zen argitara.

Proiektuak bide administratiboan irmotasuna jaso ondoren, Tolosako Jabetza Erregistroan aurkeztu zen. Jabetza Erregistroak, ordea, hainbat zuzenketa egin zizkion birpartzelazio-proiektuari. Zuzenketa horiek birpartzelazio-proiektuan jasotzeko asmoarekin, Autobiako Irla eremuko Exekuzio Unitateko Konpentsazio Batzordeak Jabego Erregistroarekin hitzartutako zuzenketak biltzen zituen dokumentu osagarria aurkeztu zuen 2013ko urtarrilaren 25ean. Dokumentu horretan azaltzen zenez, zuzenketak honako hauei eragiten zieten: F ekarritako partzela eta 1, 2 eta 5. ondoriozko lurzatiak.

Ikusita dokumentuari buruz hirigintzako teknikariak idatzitako txostena, non zehaztu zen aipatutako zuzenketak ez zirela funtsezkoak, baizik eta zuzenketa aritmetikoak eta zehaztapenak; eta, Hirigintza Batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorritik, Tokiko Gobernu Batzordeak, 2013ko otsailaren 15ean, erabaki zuen ontzat ematea «4.2 Autobiako Irla» azpiesparruko birpartzelazio proiektuaren zuzenketa osagarria eta zuzenketa horren gainean idazkariak egindako ziurtagiria Tolosako Jabetza Erregistroan aurkeztea.



LAUGARRENA.- Tolosako HAPOko «4.2 Autobiako Irla» azpiesparruko Urbanizazio Proiektuaren Testu Bategina behin betikoz onartu zela 2013ko abenduaren 20an. (B.5.1./2012/0014 espediente).

BOSGARRENA.- «4. Guadalupe-Donostia etorbidea» esparruko «4.2 Autobiako Irla» azpiesparruko **xehetasun-azterlanaren** espedienteari (2023H1070002 espediente zk.) dagozkion **aurrekariak**:

Tolosako Udalbatzak, 2024ko azaroaren 28n, egindako Ohiko Osoko Bilkuran, behin betiko onespena eman zion «4. Guadalupe-Donostia etorbidea» esparruko, «B.10 Industria Erabilerako Zona», «4.2 Autobiako Irla» azpiesparruko xehetasun-azterlan proiektuari, 2024ko martxoaren 21ean aurkeztutako bertsioa eta 2024ko irailaren 12an aurkeztutako dokumentazio osagarriari, honako baldintzak kontuan izanda:

- «15 eguneko epean 2024ko martxoaren 21ean aurkeztutako Xehetasun Azterlana eta 2024ko irailaren 12an aurkeztutako dokumentazio osagarria bateratzen dituen Xehetasun Azterlanaren Testu Bategina aurkeztu beharko da.
- Espedienteko txosten sektorialetan jasotako baldintzak bete beharko dira uneoro (Ur agentzia eta Kantauriko konfederazio Hidrografikokoak, GFAko Errepide Sailekoak eta Gipuzkoako Uraketa txostenetan jasotakoak).»

Era berean ohartarazi zen honakoak ere kontuan izan behar zirela azpiesparru honetako ondorengo espedienteak izapidetzerakoan:

- **«2012ko urriaren 31ean behin betiko onartu zen Birpartzelazio Proiektuaren al-daketa izapidetu beharko da antolamendu xehatuaren aldaketak egokitze».**
- Eraikuntza proiektuan eta obran derrigorrez bete beharko da zehaztutako profila (so-toa+erdisotoa+II) eta sestrarepeko eta sestra gaineko gehieneko eraikigarritasuna ezingo da inolaz ere gainditu.
- Eraikuntza proiektuan eta obran bete beharko dira, besteak beste, Urbanizazio, eraikuntza, eta ingurumena, paisaia eta natura babesteko udal ordenantzetako 91, 92, 98 eta 99 artikulua aparkalekuei eta zamalanetako espazioei dagokienez.»

Behin betiko onarpenaren erabakia 2025eko urtarrilaren 27ko 16 zenbakidun GAOan eman zen argitara, baita, zabalkunde handiena duten egunkarietan ere.

SEIGARRENA.- 2025eko ekainaren 4an, Burpe Obras SL enpresak, Felix Perurena Goizuetak ordezkaturik, Tolosako Udalean erregistro elektroniko bitartez (2025-7916/17 sarrera zenbakia) «1ª Modificación puntual del proyecto de reparcelación de la unidad de ejecución "4.2 Isla Autovía" de Tolosa (parcela 5 y entorno)» izeneko dokumentua aurkeztu zuela hasierako onespenerako.



ZAZPIGARRENA.- 2025eko abuztuaren 12an, hirigintzako tekniko juridikoak txostena egin zuela ondorioztatuz hasierako onespena ez ematea hilabeteko epean planoak aurkeztu bitartean. Hala, 2025eko abuztuaren 13an, interesdunari errekerimendua bidali zitzaiola.

ZORTZIGARRENA.- 2025eko irailaren 8an, Burpe Obras SL enpresak, Felix Perurena Goizuetak ordezkaturik, Tolosako Udalean erregistro elektroniko bitartez (2025-11670 sarrera zenbakia) errekeritutako planoak aurkeztu zituela hasierako onespenerako.

KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 3. eta 4. artikuluetan xedatutakoaren arabera, titularrak baduela gaitasuna administrazio publikoen aurrean jarduteko, eta betetzen dituela baldintzak interesdun izaera onar dakion.

BIGARRENA.- Aplikatu beharreko legeria honakoek ezartzen dutela:

A) Estatuko legeria:

- Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30ekoa 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuko 4.2, 5.d eta e, 7, 13.2.c eta 14.c, 18, 25 eta V. Titulua (34-41 artk.).
- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j), 70.ter1 eta 127.1.d) artikulua.
- Jabetza Erregistroan hirigintza-egintzak inskribatzeari buruzko den uztailaren 4ko 1093/1997 Errege Dekretuko 6. artikulutik 20. artikulura.
- *Ordezko gisa:*
- Lurraren Araubideari eta Hiri Antolamenduari buruzko apirilaren 9ko 1346/1976 Errege Dekretuaren 97. artikulutik 102. artikulura.
- Hirigintza kudeaketaren erregelamenduko (azaroaren 25eko 3288/1978 Errege Dekretua) 172. artikulutik 174. artikulura.
- Lurzoruaren Legearen Balorazioen Erregelamendua onartzen duen urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretua.

B) Euskal Autonomia Erkidegoko legeria:

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 42. artikulutik 49. artikulura eta 163. artikulua.

HIRUGARRENA.- 2025eko abuztuaren 12an, hirigintzako tekniko juridikoak egindako txostenean (MAU25100), besteak beste, azterketa teknikoan adierazitakoa zein proposatutako ebazpen-proposamena:



« (...) BEDERATZIGARRENA.- 2025eko ekainaren 4an, Burpe Obras SL enpresak, Felix Perurena Goizuetak ordezkatuta, Tolosako Udalean erregistro elektronikoko bitartez (2025-7916/17 sarrera zenbakia) aurkeztutako «1ª Modificación puntual del proyecto de reparcelación de la unidad de ejecución "4.2 Isla Autovía" de Tolosa (parcela 5 y entorno)» izeneko dokumentuaren inguruan egiten den honako **AZTERKETA JURIDIKOA**:

▪ Birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketaren xedea:

Aurkeztutako dokumentuaren arabera, birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketaren helburua da Tokiko Gobernu Batzarrak, 2012ko urriaren 31n, behin betikoz onartu zuen «4.2 Autobiako Irla» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuan jasotako ondoriozko 5. lursailaren (b.10 Industria-erabilera), oraindik eraikitzeke dagoena eta xehetasun-azterketa baten objektu izan dena (behin betiko onespena GAO-n 2025/01/27), eraikuntza-baldintzak berregokitzea. Eraikuntza-perimetro baten eta eraiki ezin den espazio pribatuaren doikuntza txikiak dira, lurzatietako sarbideak hobeto konpondu ahal izateko.

Aipatutako xehetasun-azterketa behin betikoz onartzearen ondorioz, aldaketa bat egin da 5. lurzati horren azaleran, bai eta lurzati horren mugakide diren jabari eta erabilera publikoko lurzatietan ere, azalera handitu egin baita, lurzati pribatuarena berriz txikitu eta, kasu batzuetan, aldaketa txiki batzuk egin dira mugetan.

Birpartzelazio-proiektuaren aldaketa puntual honen helburua da 5. industria-lurzatiaren eta onartutako xehetasun-azterketak eragindako lurzati publikoen erregistro-deskribapena egokitzea.

Birpartzelazio-proiektu honen eraginpeko lurzatiaren azalera osoa (5., R-A, R-B eta R-C lurzatiak) 8.640,3 m² da; horietatik 2.610,59 m² 5. lurzatiari dagozkio, eta gainerakoa jabari publikoko lurzatiei (R-A, R-B eta R-C).

Aldaketa honen eraginpeko finken erregistro-inskripzioak honako hauek dira:

- 5. partzela: 20.577 erregistro-finka, 390. Liburuko 2308. Liburukian inskribatua.
- R-A partzela: 20.579 erregistro-finka, 390. Liburuko 2308. Liburukian inskribatua.
- R-B partzela: 20.580 erregistro-finka, 390. Liburuko 2308. Liburukian inskribatua.
- R-C partzela: 20.581 erregistro-finka, 390. Liburuko 2308. Liburukian inskribatua.

Birpartzelazioaren aldaketa puntual hori, esan bezala, adierazitako lurzatiaren azalera eta morfologia berria behin betikoz onartutako xehetasun-azterketa onartu ondoren gaur egun duten egoerara egokitzeko beharraren ondorio da. 5. lurzatiaren doikuntza, azaleran, mugetan eta morfologian ez ezik, eraikinaren profilean ere egiten da, eta sestra gaineko zein azpiko eraikigarritasunari eusten zaio.



Beraz, ez da ekitatezko banaketa bat, eragindako lurzatiak birpartzelazio-proiektu baten ondoriozko lurzatiak baitira, eta lagapen-betebeharra bete dute, hirigintza-erakigarritasuna handitu gabe.

Urbanizazio-kargak dagoeneko ezereztu dira, eremua urbanizatu egin zen eta obrak hartu egin ziren. Hala ere, 5. lurzatiaren jabetzak lizentzia lortzen duenean, obrak eragindako jabari publikoko espazioak berrurbanizatu egin beharko dira.

ALDATU BEHARREKO LURZATIEN EGUNGO KOADROA

Partzela	Erregistro-finka	Erabilera	Azalera m2	Sestra gaineko eraikigarritasuna	Sestra azpiko eraikigarritasuna	Eraikin-profila
5	20577	industria	2.610,59	2.838	2.838	II/II
R-A	20579	oinezkoen ibilbidea	1.945,09			
R-B	20580	ibilgailuentzak o bideak eta aparkalekuak	2.719,40			
R-C	20581	eremu berdea	1.365,05			
Guztira			8.640,13	2.838	2.838	

ALDATU BEHARREKO LURZATIEN KOADRO ZUZENDUA

Partzela	Erregistro-finka	Erabilera	Azalera m2	Sestra gaineko eraikigarritasuna	Sestra azpiko eraikigarritasuna	Eraikin-profila
5	20577	industria	2.529	2.838	2.838	II/II
R-A	20579	oinezkoen ibilbidea	2.018,76			
R-B	20580	ibilgailuentzak o bideak eta aparkalekuak	2.650,38			
R-C	20581	eremu berdea	1.441,99			
Guztira			8.640,13	2.838	2.838	

■ Indarrean dagoen antolamendu xehatua betetzea:

Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorren arabera, aurreko puntuan adierazitako 5. lursail hori “4 Guadalupe-Donostia etorbidea” izeneko hirigintza esparruko “4.2. Isla Autobia” azpiesparruan dago. Azpiesparru hau hiri-lurzoru bezala sailkatuta dago eta B.10 Industria Erabilerako Zona bezala kalifikatuta dago.

Behin betikoz onartutako (2025/01/27 GAO 16 zk.) Xehetasun Azterlanak Tolosako HAPOko “4.2. Isla Autobia” azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Testu Bateginaren arabera 5. lursailari eta honen inguruari eragin zion. Hala, “4.2. Isla Autobia” egikaritze unitateko Birpartzelazio Proiektua kontuan izan zen bertan zehazten baita ondoriozko lursailaren deskribapena, azalera eta eraikigarritasuna ere.


Hauxe da plan horretan zehazten den antolamendu xehatua eta, baita, birpartzelazio-proiektuko ondoriozko lursailen planoa ere:

LEYENDA	
DOMINIO PRIVADO DEL SUELO	
PARCELA INDUSTRIALES EDIFICABLES "b.10":	4.430,23 m ²
PARCELAS CONSOLIDADAS:	2.298,57 m ²
PARCELA INDUSTRIAL NO EDIFICABLE "b.10":	1.161,13 m ²
DOMINIO PUBLICO DEL SUELO	
ITINERARIO PEATONAL (SISTEMA LOCAL DE COMUNICACIONES):	1.945,09 m ²
VIALIDAD RODADA Y APARCAMIENTOS:	2.719,40 m ²
ZONA VERDE (SISTEMA LOCAL DE ESPACIOS LIBRES):	1.365,06 m ²
RED DE COMUNICACIÓN VIARIA "b.10":	2.181,22 m ²
DOMINIO PUBLICO HIDRAULICO:	166,37 m ²


PARCELA Nº 1.....	575,46 m ²
PARCELA Nº 2.....	1.819,64 m ²
Ocupación máxima en planta de la edificación: 1.580,64 m ²	
PARCELA Nº 3.....	1.245,23 m ²
PARCELA Nº 4.....	477,88 m ²
PARCELA Nº 5.....	2.610,59 m ²
Ocupación máxima en planta de la edificación: 1.828,46 m ²	
PARCELA Nº 6.....	1.161,13 m ²
LÍMITE DEL ÁREA: 16.267 m ²	



Indarrean dagoen HAPBren zonakatze xehatua



Xehetasun Azterlanaren bitartez onartutako zonakatze xehakatur



Adierazitakoa kontuan izanik, baieztatu daiteke 2025eko ekainaren 4an, Burpe Obras SL enpresak, Felix Perurena Goizuetak ordezkatur, Tolosako Udalean aurkeztutako «1ª Modificación puntual del proyecto de reparcelación de la unidad de ejecución "4.2 Isla Autovía" de Tolosa (parcela 5 y entorno)» dokumentua bat datorrela Xehetasun Azterlanaren bitartez onartutako zonakatze xehakatuarekin.

■ Aurkeztutako dokumentazioren egokitasuna:

Udalean aurkeztutako «1ª Modificación puntual del proyecto de reparcelación de la unidad de ejecución "4.2 Isla Autovía" de Tolosa (parcela 5 y entorno)» dokumentuak 20 orri ditu eta honako puntuaz osatua dago: helburu eta aurrekariak, egungo eta moldatutako ezaugarrien taula, moldaketaren objektu diren partzelen erregistroko deskripzioa zein deskripzio berria eta, 5. lursailaren erregistroko informazioa.



Aplikatu beharreko legeria ikusita eta kontuan izanik zein den aurkeztutako birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketaren helburua, adierazi daiteke aipatutako dokumentuan jasotako eta azaldutako informazioa nahikoa dela eta egokitzen dela legerian agindutakora. **Alabaina, planoak (kokapen-planoa, mugaketaren eta informazioaren plano, antolamendu-planoa, esleipen plano eta informazio-eta esleipen-planoen plano gainjarria) falta dira; birpartzelazio-proiektuaren aldaketaren xede den eremua (egungoa eta aldaketaren bitartez geratuko dena) eta azalerak egoki islatuak ikusteko.**

Bestalde, egiaztatu da aurkeztutako erregistro-ziurtagiriaren bidez birpartzelazio-proiektuaren aldaketaren eraginpeko 5. lursailaren jabe bakarra Burpe Obras SL enpresa dela eta gainontzeko partzelak (R-A, R-B eta R-C) Tolosako Udalarenak direla.

Kontuan izanik «4.2. Isla Autobia» egikaritze unitateko urbanizazio-kargak dagoeneko ezereztuak daudela eta ez dagoela Konpentsazio Batzorderik, egokia da Burpe Obras SL enpresak aurkeztu eta sustatzea Tolosako HAPOko «4.2 Autobiako Irla» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketa egin eta sustatzea. Kasu honetan, Ituntze-Batzorderik ez dagoela kontuan hartuta, Euskal Lurzoruari buruzko Legearen 48.3 artikulua araberak, udalak onetsi beharko du hasiera batean, jendaurrean jarri beharko da 20 egunez eta eragindako jabeari jakinarazi beharko zaio.

▪ Ondorioak:

Oro har egokia da aurkeztutako Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko «4.2 Autobiako Irla» azpiesparruaren birpartzelazio-proiektuaren aldaketa dokumentua baina, birpartzelazio-proiektuaren aldaketako memorian jasotakoa planoetan islatu ez denez, ezin da hasierako onespina eman horiek aurkeztu gabe.

HAMARGARRENA.- «4. Guadalupe-Donostia etorbidea» esparruko «4.2 Autobiako Irla» azpiesparruko birpartzelazio-proiektuaren lehen aldaketa hasieraz onesteko eskumena Alkateari dagokiola, hirigintza-kudeaketako egintza den heinean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.j) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Tolosako Udalari dagokionez, ordea, eskuduntza hori **Tokiko Gobernu Batzordeari** eskualdatu zitzaioela 2023ko uztailaren 3ko 2023/1707 Alkatetza Dekretuz. Hortaz, **organo horri dagokiola hasierako onespina ematea.**

ONDORIOAK

Kontuan izanik aurrekariak, aplikatu beharreko lege-xedapenak agindutakoa eta azterketa juridikoan jasotakoa, hauxe da ondorioztatzen dudana:



LEHENA.- HASIERAKO ONESPENA EZ EMATEA 2025eko ekainaren 4an, Burpe Obras SL enpresak, Felix Perurena Goizuetak ordezkatuta, Tolosako Udalean erregistro elektroniko bitartez (2025-7916/17 sarrera zenbakia) aurkeztutako «*1ª Modificación puntual del proyecto de reparcelación de la unidad de ejecución "4.2 Isla Autovía" de Tolosa (parcela 5 y entorno)*» izeneko dokumentuari, HILABETEKO EPEAN honakoa aurkeztu bitartean:

- PLANOAK (kokapen-planoa, mugaketaren eta informazioaren planoak, antolamendu-planoa, esleipen planoak eta informazio- eta esleipen-planoen planoak gain-jarria), birpartzelazio-proiektuaren aldaketaren xede den eremua (egungoa eta aldaketaren bitartez eratuko dena) eta azalerak egoki islatuak ikusteko.

BIGARRENA.- Erabakia jakinarazi behar zaio Burpe Obras SL enpresari.»

LAUGARRENA.- 2025eko irailaren 19an, hirigintzako tekniko juridikoak egindako txostenean (MAU25130), besteak beste, azterketa teknikoan adierazitakoa zein proposatutako ebazpen-proposamena:

«(...) **LAUGARRENA.-** 2025eko irailaren 8an, Burpe Obras SL enpresak, Felix Perurena Goizuetak ordezkatuta, Tolosako Udalean erregistro elektroniko bitartez (2025-11670 sarrera zenbakia) aurkeztutako planoen inguruan egiten den honako **AZTERKETA JURIDIKOA**:

Ontzat eman daitezke aurkeztutako planoak eta, betetzat egindako errekerimendua.

ONDORIOAK

Kontuan izanik aurrekariak, aplikatu beharreko lege-xedapenak agindutakoa eta azterketa juridikoan jasotakoa, haxe da ondorioztatzen dudana:

LEHENA.- HASIERAKO ONESPENA EMATEA 2025eko ekainaren 4an, Burpe Obras SL enpresak, Felix Perurena Goizuetak ordezkatuta, Tolosako Udalean erregistro elektroniko bitartez (2025-7916/17 sarrera zenbakia) aurkeztutako «*1ª Modificación puntual del proyecto de reparcelación de la unidad de ejecución "4.2 Isla Autovía" de Tolosa (parcela 5 y entorno)*» izeneko dokumentuari eta, 2025eko irailaren 8an (2025-11670 sarrera zenbakia) aurkeztutako birpartzelazio-proiektuaren aldaketaren planoari.

BIGARRENA.- Birpartzelazio-proiektuaren aldaketa jendaurrean jarri behar da hilabetez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, Diario Vasco, Berria eta Tolosaldeko Atarian eta udaletxeko iragarki-oholean iragarkia jarritz.

Era berean, interesdunen eskura egongo da Tolosako Udalaren web gunean [<https://udala.tolosa.eus/eu/udal-administrazioa/iragarki-taula>].



Jendaurreko erakustaldian, espedientea aztertu nahi duen edonoren esku geratuko da, bidezko alegazioak aurkez daitezen.

HIRUGARRENA.- Erabakia interesdunei jakinaraztea.»

Beraz, aurreko guztia aintzat hartuta, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- HASIERAKO ONESPENA EMATEA 2025eko ekainaren 4an, Burpe Obras SL enpresak, Felix Perurena Goizuetak ordezkaturik, Tolosako Udalean erregistro elektroniko bitartez (2025-7916/17 sarrera zenbakia) aurkeztutako «*1ª Modificación puntual del proyecto de reparcelación de la unidad de ejecución "4.2 Isla Autovía" de Tolosa (parcela 5 y entorno)*» izeneko dokumentuari eta, 2025eko irailaren 8an (2025-11670 sarrera zenbakia) aurkeztutako birpartzelazio-proiektuaren aldaketaren planoei.

BIGARRENA.- Birpartzelazio-proiektuaren aldaketa jendaurrean jartzea hilabetez, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean, Diario Vasco, Berria eta Tolosaldeko Atarian eta udaletxeko iragarki-oholean iragarkia jarri.

Era berean, interesdunen eskura jartzea Tolosako Udalaren web gunean [<https://udala.tolosa.eus/eu/udal-administrazioa/iragarki-taula>].

Ohartaraztea, jendaurreko erakustaldian, espedientea aztertu nahi duen edonoren esku geratuko da, bidezko alegazioak aurkez daitezen.

HIRUGARRENA.- Erabakia interesdunei jakinaraztea.



5. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

2025/2347 Dekretua: 2025/67 faktura zerrenda.

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontu Hartzailetza eta Diruzaintza Saileko zinegotzi delegatu Maria Estibalitz Kortejarena Ugarterena, bat etorrira Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

Alkateak aintzatetsiko dituela legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2025eko honako faktura-zerrenda hau:

67. zenbakia duena, 36.477,60 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatu honek

E B A Z T E N D U

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

67. zenbakia duena, 36.477,60 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontu-hartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.



Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekursoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertzeko errekursoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARIA

Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte

Sara Berasategui Fuertes

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

ESKU7ff60ba3-fba5-4bfd-adca-54e74e5ae194



2025/2346 Dekretua: 2025/68 faktura zerrenda

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontu Hartzailetza eta Diruzaintza Saileko zinegotzi delegatu Maria Estibalitz Kortejarena Ugarterena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

Alkateak aintzatetsiko dituela legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzkoak, 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2025eko honako faktura-zerrenda hau:

68. zenbakia duena, 199.575,23 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatu honek

E B A Z T E N D U

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

68. zenbakia duena, 199.575,23 eurokoa

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontu-hartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.



Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekursoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertze-errekursoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARIA

Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte

Sara Berasategui Fuertes

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

ESKU7ff60ba3-fba5-4bfd-adca-54e74e5ae194

2025/2345 Dekretua: 2025/69 faktura zerrenda.

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Tolosako Udaleko Kontu Hartzailetza eta Diruzaintza Saileko zinegotzi delegatu Maria Estibalitz Kortejarena Ugarterena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

KONTUAN HARTURIK

Alkateak aintzatetsiko dituela legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak, 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2025eko honako faktura-zerrenda hau:

69. zenbakia duena, 1.880,55 eurokoa.

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatu honek

E B A Z T E N D U

LEHENA.- Onartzea honako faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua, eta ordain ditzatela agintzea:

69. zenbakia duena, 1.880,55 eurokoa.

BIGARRENA.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontu-hartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.



Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekursoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, prozedurari amaiera emateko nahiz berraztertze-errekursoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtoa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

UDAL IDAZKARIA

Maria Estibalitz Kortejarena Ugarte

Sara Berasategui Fuertes

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2025/1933 Dekretua: 2025/70 faktura zerrenda.

ALKATETZA DEKRETUA

ANGEL MARTINEZ DE RITUERTO ARREGUI Tolosako Udaleko alkate-udalburuarena, bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 artikuluan ezarritakoarekin.



KONTUAN HARTURIK

LEHENA.- Kontuhartzailletza teknikariak egindako txostenean ondorengo hau zehaztu zuen:

“Asociación Protectora de Animales y Plantas de Gipuzkoa” elkarteak aurkeztutako ondorengo fakturak jaso dira, guztira 12.490,57 eurokoak, 0700.227.07.311.00 2024 aurrekontu partidaren kargura:

Faktura zk.	Fakturaren data	Zenbatekoa	Kontzeptua
018/2024	2024/02/28	852,45	Otsaileko bilketa zerbitzua
029/2024	2024/02/28	997,04	Hileko kuota finkoa: otsaila
044/2024	2024/04/04	997,04	Hileko kuota finkoa: martxoa
040/2024	2024/04/30	1.342,41	Apirileko bilketa zerbitzua
059/2024	2024/04/30	997,04	Hileko kuota finkoa: apirila
050/2024	2024/05/31	1.653,65	Maiatzeko bilketa zerbitzua
074/2024	2024/05/31	997,04	Hileko kuota finkoa: maiatza
064/2024	2024/06/30	426,22	Ekaineko bilketa zerbitzua
089/2024	2024/06/30	997,04	Hileko kuota finkoa: ekaina
077/2024	2024/07/30	2.233,60	Uztaileko bilketa zerbitzua
104/2024	2024/07/31	997,04	Hileko kuota finkoa: uztaila.

Guztira: 12.490,57

Gastuak kontratu txiki moduan izapidetu dira.

OINARRI JURIDIKOAK

1. 21/2003 FORU ARAUA, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Entitateen Aurrekontuei buruzkoa, bere IV TITULUA: KONTUHARTZE-KONTROLA.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiko 32/2018 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duena.

3. 2021/7/29 datako toki erakundearen osoko bilkuraren erabakia, aurretiazko fiskalizazio eta kontu-hartze mugatuko araubidea eta espedienteetan egiaztatu beharreko baldintzak onartzen dituena.



JAKINARAZTEN DUT

Lehenena.- Obligazioen onarpena aurretiazko kontu-hartzearen menpe daude, abenduaren 27ko Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen 32/2018 Foru Dekretuaren 18. artikulua arabera.

Organo kontu-hartzaileak egiaztatu beharko du obligazioa onartzeko beharrezkoak diren baldintza guztiak betetzen direla.

Bigarrena.- Kontu-hartzaile akzidentalak, espediente bereko 2024ko otsailaren 6ko fiskalizazio txostenean, adierazi zuen, aipatutako elkarteak aurkeztu zituen 2023 urteko irailetik abendura bitarteko animalien bilketa zerbitzuaren 4 fakturak ez zirela behar bezala izapidetu (2024FISK0002):

«...gastua kontratu txiki bidez izapidetu da, SAREKO aplikazioan egindako eskarien bidez. Baina, aurkeztutako faktura hauek, eta baita urtean zehar aurkeztu diren gainontzekoak ere, prestazio errepikakor baten ondorio dira, eta Sektore Publikoko kontratuak arautzen dituen 9/2017 Legearen 28.8 artikulua arabera, prestazio horiek ezingo dute urtebete baino gehiago iraun. Kontratu txiki baten bidez ezin bada gastu hau tramitatu, aldez aurretik fiskalizatu behar da.

«2.-Zerbitzu honi buruz 2023ko otsailaren 22an egindako fiskalizazio 39/2023 txostenean eta 2023ko martxoaren 1eko 2023/466 Alkatetza Dekretuan Idazkariak egindako eginbidean adierazten zen zerbitzu hau ezin zela kontratu txikien bidez tramitatu eta lizitazio prozedura hasi beharra zegoela. Zerbitzuaren lizitazioa abian jartzeko denbora emate aldera, 2023an ez da txostenik egin "Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" Elkarteak aurkeztutako fakturei buruz. Baina, egia esan, nahitaezko lege-prozeduraren arabera izapidetzen ez den zerbitzu bat ematen jarraitzen dugu. Beraz, lizitazioa lehenbailehen martxan jartzea derrigorrezkoa da.»

Txostenaren emaitza erreparo etenarazlea izan zen.

Hirugarrena.- Udalbatzak, 2024ko otsailaren 29an, Ohiko Osoko bilkuran, onartzea erabaki zuen "Asociación Protectora de Animales y Plantas de Gipuzkoa" elkartearen kredituen judizioz kanpoko aitorpena. Erabaki honen bidez ordaindu ziren 2023 urteko irailetik abendura bitarteko fakturak.

Laugarrena.- "Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" Elkarteak animaliak biltzeko zerbitzuari dagozkion beste 11 faktura aurkeztu ditu eta horien gastuak zuzen izapidetu gabe jarraitzen du. Izan ere:

- prestazioak errepikakorrak dira eta urtero behar berari erantzuten diote, kontratu txikien iraupena urtebetetik beherakoa denean, luzatzeko aukerarik gabe, 9/2017 Legearen 29.8 artikulua arabera.



Espedientea legea jarraituz izapidetu ez denez, ulertu behar da ez dela egin eginkizun kontu-hartzailea, eta abenduaren 27ko Gipuzkoako tokiko sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa erregulatzen duen 32/2018 Foru Dekretuaren 28. artikulua aplikatu behar da. Honela dio artikulua honek:

“28. artikulua. Eginkizun kontu-hartzailea ez betetzea.

1. Foru dekretu honetan jasotakoaren arabera eginkizun kontu-hartzailea derrigorrezkoa izanik bete ez denean, ezin izango da ez obligazioa onartu, ez ordainketa izapidetu eta ez jarduketa horien aldeko kontu-hartzea egin, harik eta ez-betetzea artikulua hone-tan jasotakoari jarraituz ezagutu eta konpondu arte.

2. Baldin eta espediente bat ezagutzean organo kontu-hartzaileak eginkizun kontuhartzailea bete ez dela erreparatzen badio, horren berri emango dio espedientea hasi duen agintariari eta, aldi berean, bere iritzia emango du proposamenaz, txosten hori jarduketei erantsita, betiere toki entitateko lehendakariak prozedurarekin eta, bidezkoak izanez ge-ro, gainerako jarduketekin jarraitzea erabaki ahal izateko.

Baldin eta eginkizun kontu-hartzailea ez bada betetzen osoko bilkuraren eskumeneko obligazio edo gastuei dagokienez, toki entitateko lehendakariak osoko bilkuraren erabakiaren menpe jarriko du prozeduraren eta, bidezkoak izanez gero, gainerako jarduketan jarraipena.

Txosten horrek ez du izango eginkizun kontu-hartzailearen ariketaren izaerarik, salbu eta eragozpena azaldu bada ordainketa aginduen jatorri diren egintzak fiskalizatu ez direnean. Txostena foru dekretu honetako 15. artikulua 6. apartatuan aipatutako zerrendan sartuko da, eta gutxienez alderdi hauek barnean hartuko ditu:

a) Gastua xehetasunez deskribatzea. Hura identifikatzeko behar diren datu guztiak sartuko dira, eta gutxienez honako hauek: organo kudeatzailea, gastuaren xedea, zenbatekoa, izaera juridikoa, noiz egin den, aurrekontu kontzeptua eta zer ekitaldi ekonomikotara egotziko den.

b) Adieraztea zer kasutan ez den araudia bete, informatzen duen organo kontu-hartzailearen iritziz, derrigorrezko aurretiazko fiskalizazio edo kontu-hartzea egin gabe egintza eman zenean, urratutako legezko xedapenak espresuki aipatuta.

c) Egiaztatzea prestazioak benetan gauzatu direla eta haien prezioa merkatuko prezioarekin bat datorrela. Horretarako, kontuan hartuko dira organo kudeatzaileak aurkeztutako balorazio eta frogagiriak, betiere organo horrek beharrezkoak diren aholku edo txosten teknikoak eskuratu behar izanik.

d) Egiaztatzea aurrekontu kreditu egokia eta nahikoa dagoela gastua ordaintzeko.



e) *Begiratzea aukera ote dagoen eta komeni ote den ordenamendua urratuta emandako egintzak berrikustea. Hori guztia egitea organo kontu-hartzaileari dagokio, betiere aintzat hartuta prestazioak egin diren, haiek zer izaera duten eta nola baloratzen diren, bai eta legea bete den ere. Horretarako, kontuan hartuko da, egintzaren berrikuspenaren emaitza gauzatzeko, kalte-galeren ordainketaren bidea erabiliko dela, betiere Administrazioa bidegabe aberastearen edo bere ardurapeko obligazioa ez betetzearen ondorioz berari dagokion ondare erantzunaren ondorioz. Hortaz, ekonomia prozesaleko arrazoiak direla eta, berrikuspen hori egiteko eskatzea bidezkoa litzateke bakarrik uste denean kalte- ordain horien zenbatekoa txikiagoa izango dela proposatzen dena baino.*

3. *Biztanle kopuru handiko udalerrietan, obligazio eta gastuen inguruan esleituta dagoen eskumenaren arabera, osoko bilkurako lehendakariak edo tokiko gobernu batzordeak erabakiko du prozedurarekin eta bidezkoak diren gainerako jarduketekin jarraitu edo ez.*

Ebazteko eskumena tokiko gobernu batzordearena denean, espedientea tokiko gobernu batzordeari bidaltzeko ardura izango da espedientearen izapideaz arduratzen den organoari dagokion edo organismo autonomoa edo, hala badagokio, partzuergoa adskribatuta duen arloko departamentu edo zinegotziaren organo titularrena, betiere eskumen hori eskuordetu ahal izan gabe.

4. *Osoko bilkurako lehendakariak edo tokiko gobernu batzordeak aldeko erabakia hartzen badute ere, egon daitezkeen erantzukizunak eskatu ahal izango dira.”*

Bosgarrena.-*Kontu-hartzailetzako eginkizuna nahitaezkoa izanda adierazitako espedienteen, eta gastua baimentzeko aurretiazko fasean eginkizun hori alde batera utzi denez, ezin izango da obligazioa onartu, ezta jarduketa horien aldeko kontu-hartzea egin, ez-betetze hori ezagutu eta konpondu arte.*

Seigarrena.-*Eten egiten da, ekonomia eta finantza alderdietan, nahitaezko funtzio kontu-hartzailea alde batera utzita emandako egintzaren eraginkortasuna.*

Zazpigarrena.-*32/2018 Foru Dekretuaren 28.2 artikulua aipatzen dituen alderdiei dagokienez:*

a. *Gastuaren deskribapen zehatza*

Ondorengo taulan xehetasunez deskribatzen da egindako gastua

<i>Faktura zk.</i>	<i>Fakturaren data</i>	<i>Zenbatekoa</i>	<i>Kontzeptua</i>
018/2024	2024/02/28	852,45	Otsaileko bilketa zerbitzua
029/2024	2024/02/28	997,04	Hileko kuota finkoa: otsaila
044/2024	2024/04/04	997,04	Hileko kuota finkoa: martxoa
040/2024	2024/04/30	1.342,41	Apirileko bilketa zerbitzua
059/2024	2024/04/30	997,04	Hileko kuota finkoa: apirila
050/2024	2024/05/31	1.653,65	Maiatzeko bilketa zerbitzua
074/2024	2024/05/31	997,04	Hileko kuota finkoa: maiatza
064/2024	2024/06/30	426,22	Ekaineko bilketa zerbitzua
089/2024	2024/06/30	997,04	Hileko kuota finkoa: ekaina
077/2024	2024/07/30	2.233,60	Uztaileko bilketa zerbitzua
104/2024	2024/07/31	997,04	Hileko kuota finkoa: uztaila.
Guztira:		12.490,57	

b. *Arauak ez betetzearen azalpena*

Kontuhartzaitza honen iritziz, lehen identifikatutako gastuak txosten honen lehen jakinarazpenean eta eranskinean adierazten diren akatsak ditu.

c. *Prestazioak egin direla eta prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela egiaztatzea*

Saileko arduradunak txosten bat egin beharko du, egiaztatuz, prestazioak egin direla eta hauen prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela.

d. *Egiaztatzea aurrekontu kreditu egokia eta nahikoa dagoela*

Gastuaren zenbatekoa ordaintzeko aurrekontu-kreditu egokia eta nahikoa dago 0700.227.07.311.00 2024 aurrekontu partidan, lotura juridikoari dagokionez (AD-2821/2024) elkarteak aurkeztutako hamaika fakturei dagokien gastua onartzeko.

e. *Egintzak berrikusteko aukera eta komenigarritasuna*

Ordenamendua urratuz emandako egintzak berrikusteko aukerari eta komenigarritasunari dagokionez, aurreko c) puntuan aipatutako organo kudeatzaileak egiten duen txostenaren arabera izango da.



Saileko arduradunak adierazten badu dagozkion prestazioak egin direla eta merkatuko prezioari egokitzen zaizkiola, kontuan hartu beharko da kalte-ordainaren zenbatekoa bat datorrela fakturaren edo gastuaren zenbatekoarekin eta, beraz, ez dela beharrezkoa ESKU57759879-2cd5-4242-8488-9ee7bf5ef557 egintza berrikusteko eskatzea.

Zortzigarrena.- Alkateari dagokio erabakitzea prozedurak, eta kasuan kasu dagozkion jarduketek eta erantzukizunek, jarraituko duten ala ez.

Bederatzigarrena.- Aurrekoari kalterik egin gabe, udalaren alde bidegabeko aberastea gertatu bada, eta sailaren arduradunak egiaztatzen badu prestazioak egin direla eta hauen prezioa merkatu-prezioarekin bat datorrela, egindako prestazioak "Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" elkarteari ordaindu behar zaizkiola uste dut, kredituaren judizioz kanpoko aitorten bat izapidetuz. Kreditu egokia eta nahikoa dagoenez, honen eskumena Alkatearena da.

Hamargarrena.- Txosten hau bidali behar zaio alkateari, jakinaren gainean egon dadin, eta organo kudeatzaileari, dagokion txostena aurkez dezan, prestazioen gauzatzeari buruz eta horien prezioa merkatuko prezioari egokitzen zaion ala ez adieraz.

Hamaikagarrena.- Txosten honetan aipatzen diren fakturez gain zerbitzua lizitatu bitartean udalak animalien bilketa zerbitzuaren faktura gehiago jasoko balitu, horietan ere eginkizun kontu-hartzailea ez betetze egoera legoke.

BIGARRENA.- Kontuhartzailtzak eskatu bezala, udaltzainburuak igorritako txostenean zehazten du prestazioak benetan gauzatu direla eta haien prezioa merkatuko prezioarekin bat datorrela.

Horiek horrela, alkate-udalburu honek

E B A Z T E N D U

LEHENA.- Txosten honetan aipatzen diren fakturaz gain zerbitzua lizitatu bitartean udalak animalien bilketa zerbitzuaren faktura gehiago jasotzen baditu, "Asociación protectora de animales y plantas de Gipuzkoa" elkarteari ordaintzea.

BIGARRENA.- Erabaki hauek jakinaraztea interesdunari, Kontuhartzailtzari eta Kontratazio Unitateari.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurso hauek jar daitezke:

ESKU7ff60ba3-fba5-4bfd-adca-54e74e5ae194



Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsoa aurkez dezake Alkatetzaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsoaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Era berean, berriazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze-errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Errekurtso hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Interesdunari legearen arabera jakinaraz bekio.

Alkateak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari akzidentala naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

>> EGINBIDEA

Tolosako Udaleko idazkari akzidentalak eginbide hau egin du, honako hau jasota gera dadin:

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak hau zehazten du 70.3 artikuluan: "3.- Ingera gastuen erabilpenari, betebeharren aintzatespenari edo ordainketa-aginduari badagokio, espedientearen izapidetza etengo da harik eta hura ebazten den arte, beti ere honelakoetan gertatzen denean: a) Oinarria kredituaren askieztasunean edo proposatutakoaren ezegokitasunean datzanean. b) Ordainketa-aginduak sortu dituzten egintzak fiskalizatu ez direnean. c) Espedientean funtsezko beharkizun edo izapideak alde batetara utzi direnean. d) Ingera obra, hornidura, eskuraketa eta zerbitzuen egiaztapen materialetatik sortzen denean.". Halaber, artikuluko bereko 4. idatz-zatiak hau zehazten du: "Eragozpenak ukitzen duen organoa berarekin ados ez dagoenean, toki entitateko lehendakariak ebatzi beharko du desadostasuna; eta ebazpen hori betearazi beharrekoa izango da. Ahalmen hau ezin da eskuordetu.". Era berean, artikuluko bereko 6. eta 7. idatz-zatiek hau zehazten dute: "6. Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio Udaltzatarrari edo organo baliokideari, adierazitako eragozpenen kontra toki entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru sarreraren arloan atzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketan aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe. Apartatu honetan jasotakoak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai



zerrendan. Toki entitateko lehendakariak jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du Udalbatzarrean edo organo baliokidean. 7. Kontu-hartzailetzako organoak, toki entitateko lehendakariaren bitartez, txosten bat helaraziko dio urtero Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, adierazitako eragozpenen kontra toki entitateko lehendakariak eta Udalbatzarrak edo organo baliokideak hartutako ebazpen eta akordio guztien inguruan; halaber, diru sarreren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, toki entitatearen justifikazio txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.”.

Hortaz, idazkari akzidental honek adierazi nahi du Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko Foru Arauan xedatutakoaren arabera, beharrezkoa izango dela kontuhartzailetzako organoak txostena helaraztea Udalbatzarrari, adierazitako eragozpenen kontra toki entitateko lehendakariak hartutako ebazpen guztien inguruan. Halaber, alkate-lehendakariaren bitartez, txosten bat helaraziko dio urtero Herri Kontuen Euskal Epaitegiari, adierazitako eragozpenen kontra alkate-lehendakariak eta Udalbatzak hartutako ebazpen eta akordio guztien inguruan.

ALKATEA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Angel Martinez de Rituerto Arregui

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

2025/884 Dekretua: 2025/71 faktura zerrenda

ZINEGOTZI DELEGATU DEKRETUA

Tolosako Udaleko Giza Baliabideetako azpisaila(e)ko zinegotzi delegatuak, Josune Sanz Vidal bat etorrita Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritakoarekin, eta 2023/1718 Alkatetza Dekretuak, 2023ko uztailaren 6koak, zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.



IKUSIRIK

Alkatearen 2019/05/09ko 2019/729 dekretuan ikastaroei buruz onartutako arauak eta, Udaleko Itzultzailea den Lierni Ugartemendia Garicano-k, ondoren aipatzen den ikastaroan parte hartzeko egin duen eskaera,

- Izenburua: Euskaraz lan egiteko interneteko baliabideak.
- Erakunde Antolatzailea: IVAP.
- Egunak: 2025eko apirilaren 2 eta 9an.
- Modalitatea: Aurrez aurrekoa. Donostia.
- Ordutegia: 09:00 – 14:00.
- Izen emate-kuota: 119,70€.

Aipatutako guztia aintzat hartuta, zinegotzi delegatu honek honako hau

EBAZTEN DU

Lehenik.- Lierni Ugartemendia Garicano Udal langileari, “Euskaraz lan egiteko interneteko baliabideak” ikastaroan parte hartzeko baimena ematea.

Bigarrenik.- Matrikula kontzeptuan dagokion gastua onartzea eta ordaintzea, eta joan-etorri kontzeptuan dagokion gastua onartzea, behin egiaztagiria aurkeztu ondoren.

Hirugarrenik.- Ikastaroa amaitzean, langileak balorazio eta aprobetxamendu txostena egin beharko du, giza baliabide sailara helaraziz; formazioak izan dituen alderdi positibo eta negatiboak azpimarratuz, eta ikastaroaren egokitasuna bere lanpostuari baloratuz.

Laugarrenik.- Ebazpen honen berri ematea interesdunari.

Ebazpen hau finkoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Erabakiaren kontra, honako errekurtsio hauek jar daitezke:

Erabakiaren aurka auzitara jo aurretik, interesdunak, hala nahi izanez gero, berraztertze-errekurtsioa aurkez dezake Alkatezaren aurrean hilabete bateko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Hori dena, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Bestela, berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ordez, edo aipatutako errekurtsioaren erantzunaren aurka joko balu, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkez dezake bi hilabeteko epean, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.



TOLOSAKO
UDALA

2025IGBA0029

Era berean, berariazko ebazpenik ez badago, bai prozedurari amaiera emateko edo bai berraztertze errekurtsoari erantzuna emateko, interesdunak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezake, edozein unetan. Helegite hori Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegian aurkeztu beharko da.

Interesdunari legearen arabera jakinaraz bekio.

Zinegotzi delegatuak agindu eta izenpetua, eta nik, idazkari akzidentala naizen honek, ziurtatua, Tolosan, sinaduran agertzen den datan.

ZINEGOTZI DELEGATUA

IDAZKARI AKZIDENTALA

Josune Sanz Vidal

Francisco Javier Araniguría Rodrigo

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo dute 10:45ean.

ALKATEA

UDAL IDAZKARIA

ESKU7ff60ba3-fba5-4bfd-adca-54e74e5ae194

2. PUNTUKO ERANSKINA / ANEJO DEL 2º PUNTO

2025IGBA0029

I. ERANSKINA

TOLOSALDEA GARATZEN ETA TOLOSAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENARI ERANSTEKO II. DOKUMENTU OSAGARRIA. HITZARMENA TOLOSAKO UDALERRIAN TOLOSALDEKO TURISMO JASANGARRIAREN PLANEKO JARDUERAK GAUZATZEKO DA. PLAN HORI SUSPERTZE, TRANSFORMAZIO ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUKOA DA ETA EUROPAR BATASUNEKO NEXT GENERATION FUNTSAK DIRA FINANTZATZAILEAK.

2ª ADENDA A ANEXAR AL CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE TOLOSALDEA GARATZEN Y EL AYUNTAMIENTO DE TOLOSA PARA LA EJECUCIÓN DE LAS ACTUACIONES DEL PLAN DE SOSTENIBILIDAD TURÍSTICA EN DESTINO DE TOLOSALDEA, ENMARcado EN EL PLAN DE RECUPERACION, TRANSFORMACION Y RESILIENCIA, FINANCIADOS POR FONDOS DE LA UNION EUROPEA – NEXT GENERATION EU, EN EL MUNICIPIO DE TOLOSA.

Tolosan, azken sinadura elektronikoaren egunean.

En Tolosa, a fecha de la última firma electrónica.

BILDU DIRA

REUNIDOS

Alde batetik, Alaitz Labaien Tolosa andrea, adinez nagusia (NAN: 72.483.242.F), lehendakariordea Tolosaldea Garatzen S.A. erakundean (helbidea: Lehiberri Zentroa, Apattaerreka industrialdea, Tolosa), Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatua, eta IFK A20500229 duena. Kargu horretarako izendatua Administrazio Kontseiluak 2023ko urriaren 02an egindako bileran. Gaur egun, erakunde horren ordezkaritza du eta baita hitzarmen hau sinatzeko ahalmena ere, Administrazio

De una parte, Dña. Alaitz Labaien Tolosa, mayor de edad, con DNI nº 72.483.242.F, vicepresidenta de la entidad Tolosaldea Garatzen S.A., con domicilio en Tolosa, Lehiberri Zentroa, Apattaerreka Industriagunea, inscrita en el Registro Mercantil de Gipuzkoa y CIF A20500229, cargo para el que fue nombrado en el Consejo de Administración celebrado el 02 de octubre de 2023. Ostenta, en la actualidad, la representación de dicha entidad, y está facultado para suscribir el presente Convenio,

2. PUNTUKO ERANSKINA / ANEJO DEL 2º PUNTO

2025IGBA0029

Kontseiluaren 2025eko irailaren 15eko erabakiaren arabera (I. ERANSKINA).

en virtud de Acuerdo del Consejo de Administración de fecha 15 de septiembre de 2025 (ANEXO I).

Bestetik, Angel Martinez de Rituerto Arregui jauna, Tolosako Udaleko alkate-udalburua, erakunde horren ordezkari gisa hitzarmen hau sinatzeko ahalmena duena, Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko irailaren 30ean hartutako erabakiaren arabera, Sara Berasategui Fuertes andrea, Tolosako Udaleko idazkaria, bertaratuta eta egintzaren fede emanda (II. ERANSKINA).

De otra, D. Angel Martinez de Rituerto Arregui, alcalde-presidente del Ayuntamiento de Tolosa, en representación de dicha entidad, facultado para suscribir el presente Convenio, en virtud de Acuerdo adoptado por la Junta del Gobierno Local del Ayuntamiento de Tolosa en fecha 30 de septiembre de 2025, asistido de Dña Sara Berasategui Fuertes, secretaria-interventora del Ayuntamiento de Tolosa, que da fe del acto (ANEXO II).

Alderdiek elkarri aitortzen diote, bakoitzak esku hartzen duen moduan, Tolosaldea Garatzen eta Tolosako udalaren arteko hitzarmenaren 2. dokumentu osagarri hau sinatzeko behar den legezko gaitasuna dutela, eta, horretarako, honako hau

Las partes se reconocen mutuamente, en la calidad en que cada una interviene, la capacidad legal necesaria para suscribir esta 2ª Adenda al Convenio suscrito entre Tolosaldea Garatzen y el Ayuntamiento de Tolosa y al efecto,

ADIERAZTEN DUTE

I. Tolosaldea Garatzen eta Tolosako Udalak lankidetzeta-hitzarmen bat sinatu zuten Tolosaldeko Turismo Jasangarritasuneko Planaren jarduketak Tolosako udalerrian gauzatzeko, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan, Batasunaren funtsek finantzatuta. Europa – Next Generation EU. Tolosaldea Garatzen Saren Administrazio

EXPONEN

I. Que Tolosaldea Garatzen y el Ayuntamiento de Tolosa suscribieron un Convenio de colaboración para la ejecución de las actuaciones del Plan de Sostenibilidad Turística en Destino de Tolosaldea, enmarcado en el plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia, financiados por fondos de la Unión Europea – Next Generation EU, en el municipio

2. PUNTUKO ERANSKINA / ANEJO DEL 2º PUNTO

2025IGBA0029

Kontseiluaren 2024ko urriaren 28ko de Tolosa en virtud de Acuerdo del Consejo de erabakiaren eta Tolosako Tokiko Gobernu Administración de Tolosaldea Garatzen S.A. de Batzarrak 2024ko urriaren 22an hartutako fecha 28 de octubre de 2024 y acuerdo erabakia oinarri. adoptado por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Tolosa en fecha 22 de octubre de 2024.

II. Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, 2022ko abenduaren 14ko Konferentzia Sektorialaren erabakiari jarraiki, 1.980.400 euro eman dizkio Tolosaldea Garatzen erakundeari, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Mekanismoa izeneko aurrekontu-programaren kontura (1228 programa, 12281 azpiprograma), Tolosaldeko Jasangarritasun Turistikoko Plana 12281) para financiar Plan de Sostenibilidad finantzatzeko. Honako hauek dira plan hau osatzen duten jarduerak:

II. Que el Departamento de Turismo, Comercio y Consumo del Gobierno Vasco, en virtud del acuerdo de la Conferencia Sectorial de 14 de diciembre de 2022, ha aportado a Tolosaldea Garatzen, la cantidad de 1.980.400 € euros con cargo al programa presupuestario denominado Mecanismo de Recuperación, Transformación y Resiliencia (programa 1228, subprograma 12281) para financiar Plan de Sostenibilidad Turística de Tolosaldea. Las actuaciones que componen este plan son las siguientes:

7. esku-hartzea: Tolosaldea Garatzen. Tolosaldeko HJTP / Intervención 7: Tolosaldea Garatzen. PSTD de Tolosaldea

Jarduketa-ardatzak / Ejes de actuación	Jarduketak / Actuaciones	1. urtekoa / Anualidad 1	2. urtekoa / Anualidad 2	3. urtekoa / Anualidad 3	GUZTIRA / TOTAL
1. ardatza / Eje 1	1 Fagus-Alkiza eta Pello Zabala Gunea interpretazio-zentroak hobetzea. / Mejora de los Centro de Interpretación Fagus-Alkiza y Pello Zabala Gunea	0 €	49.375 €	80.000 €	129.375 €
	2 Higaduraren aurka babesteko neurriak aztertzea eta ezartzea. / Análisis e implantación de medidas para la protección contra la erosión.	0 €	0 €	150.000 €	150.000 €

2. PUNTUKO ERANSKINA / ANEJO DEL 2º PUNTO

2025IGBA0029

	3	Biodibertsitatea hobetzeko eta zabaltzeko ibilbideen ondoan hezeguneak sortzea. / Creación de humedales junto a recorridos para mejorar la biodiversidad y divulgarla.	0 €	0 €	59.375 €	59.375 €
		1. ARDATZA, guztira / EJE 1, total	0 €	49.375 €	289.375 €	338.750 €
	1	Tolosaldea oinez eta bizikletaz. / Tolosaldea Caminando y en bici.	51.375 €	151.000 €	20.000 €	222.375 €
	2	Turismo-mugikortasuna aztertzea eta irtenbideak ezartzea. / Análisis de la movilidad turística e implantación de soluciones.	50.000 €	290.000 €	60.000 €	400.000 €
2. ardatza / Eje 2		2. ARDATZA, guztira / EJE 2, total	101.375 €	441.000 €	80.000 €	622.375 €
	1	Tolosaldeko turismo-digitalizazio eta -inteligentzia plana. / Plan de digitalización e inteligencia turística de Tolosaldea.	99.375 €	105.200 €	42.200 €	246.775 €
3. ardatza / Eje 3		3. ARDATZA, guztira / EJE 3, total	99.375 €	105.200 €	42.200 €	246.775 €
	1	Eskaintza kultural turistikoa sortzea eta hobetzea. / Creación y mejora de la oferta turística cultural.	0 €	49.375 €	180.000 €	229.375 €
	2	Tolosaldea irigarria. / Tolosaldea accesible.	9.375 €	43.000 €	50.000 €	102.375 €
	3	Turismo aktiboaren eskaintza hobetzea. / Mejora de la oferta de turismo activo.	31.375 €	50.000 €	0 €	81.375 €
	4	Turistei bertako produktuen balioa nabarmentzea. / Puesta en valor de productos locales para el turista.	79.375 €	60.000 €	40.000 €	179.375 €
4. ardatza / Eje 4	5	Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planaren kudeatzailtza. / Gerencia del plan de sostenibilidad turística en destino.	60.000 €	60.000 €	60.000 €	180.000 €

ESKU7ff60ba3-fba5-4bfd-adca-54e74e5ae194

2. PUNTUKO ERANSKINA / ANEJO DEL 2º PUNTO

2025IGBA0029

		4. ARDATZA, guztira / EJE 4, total	180.125 €	262.375 €	330.000 €	772.500 €
	Guztira / Total		380.875 €	857.950, €	741.575, €	1.980.400,00 €

Dokumentu osagarri honen helburua da Tolosa garatu beharreko Tolosaldeko Jasangarritasun Turistikoko Planaren 2. ardatzean (1. jarduera) aurreikusitako ekintza zehaztea da: Tolosaldea Oinez eta bizikletaz.

La presente adenda tiene por finalidad definir la ejecución prevista en el Eje 2, Actuación 1 del Plan de Sostenibilidad Turística a desarrollar en Tolosa: Tolosaldea Caminando y en bici.

Horregatik guztiagatik, alderdiek hitzarmenari erantsi beharreko 2. Dokumentu osagarria sinatzea erabaki dute.

Por todo lo anterior, las partes acuerdan suscribir la 2ª adenda a anexar al convenio suscrito entre Tolosaldea Garatzen y el Ayuntamiento de Tolosa.

Dokumentu hori honako hauek arautuko dute:

Ese documento se regirá por las siguientes:

1. AURREKARIAK ETA HELBURUA

1. ANTECEDENTES Y FINALIDAD

2022ko maiatzaren 17an aurkeztu zen Tolosaldeko Turismo Jasangarriaren planeko 2.ardatzeko (Efizientzia energetikoaren hobekuntza) lehen ekintza “*Tolosaldea oinez eta bizikletan*” ekintza izan zen. Bertan, besteak beste, mendi ibilbideen sorrera eta egokitzapena egiteko jarduera zehaztu zen.

La primera acción del Eje 2 (Mejora de la eficiencia energética) del Plan de Turismo Sostenible de Tolosaldea, presentado el 17 de mayo de 2022, fue la acción “*Tolosaldea caminando y en bici*”. En ella se concretó, entre otras, la actividad de creación y acondicionamiento de senderos.

Tolosaldeko herriei, mendi ibilbide eskaintza sortu edo egungoa egokitzeko interesa adierazteko eskatu zitzairen 2024ko abenduan eta Tolosak bere interesa agertu zuen.

En diciembre de 2024 se solicitó a los municipios de Tolosaldea que mostrarán su interés por crear una oferta de senderismo o acondicionar el existente y Tolosa comunicó su interés por mejorar las rutas de senderismo

2. PUNTUKO ERANSKINA / ANEJO DEL 2º PUNTO

2025IGBA0029

municipales.

Tolosaldea Garatzeneko Administrazio Kontseiluak 2025eko maiatzaren 26ean egindako bilkuran Tolosaldeko Turismo Jasangarriko Planaren 2. Ardatzeko (Efizientzia energetikoa) 2. Jardueraren (turismo mugikortasuna aztertzea eta irtenbideak ezartzea) baitan, 2025TUR004 ESP. ZK.-ko kontratua esleitu zion Movea enpresari, Tolosaldeko Mugikortasuna turistikoa aztertu, exekuzio proiektuak idatzi eta zuzentzeko helburua zuena hain zuzen. Zehazki lan hau egitea eskatu zitzaion mendi ibilbideen inguruan plegu teknikoetan:

«Lanak lau fasetan egingo dira:

1- Informazio-, analisi- eta diagnostiko-fasea.

2- Proposamenak idaztea eta inplikaturako udalekin kontraste-bilerak egitea.

3- Behin betiko proiektu betearazleak idaztea.

4- Lanen zuzendaritza.”

-...

“Hauek dira aztertu beharreko bidezidorrak:

El Consejo de Administración de Tolosaldea Garatzen, en sesión celebrada el 26 de mayo de 2025, dentro Plan de Turismo Sostenible de Tolosaldea, en el 2º eje (Eficiencia energética) y la 2ª actuación (estudio de movilidad turística e implantación de soluciones) adjudicó el EXPTE. 2025TUR004 a la empresa Movea. El contrato tenía por objeto el estudio, redacción de proyectos ejecutivos y dirección de la Movilidad Turística de Tolosaldea. Concretamente en los pliegos técnicos se requirió la realización del siguiente trabajo en relación con los senderos:

«Los trabajos se desarrollarán en cuatro fases:

1- Fase de información, análisis y diagnóstico.

2- Redacción de propuestas y reuniones de contraste con los ayuntamientos implicados.

3- Redacción de proyectos ejecutivos definitivos.

4- Dirección de los trabajos.”

-...

“Los senderos con incidencias a revisar son los siguientes:

2. PUNTUKO ERANSKINA / ANEJO DEL 2º PUNTO

2025IGBA0029

- Tolosa:

- Tolosa:

1. *Seinaletika indartzea: PR-GI 2007 eta Santa Luzia-Uzturre ibilbidea».*

1. *Reforzar la señalética en: PR-GI 114 y la ruta Santa Lucia-Uzturre».*

Tolosako udalak erabaki zuen lehen diagnostiko fasean, PR-GI 2007 ibilbidearen ordezk PR-GI 114 ibilbidea egokitzea.

En la fase de diagnóstico, el Ayuntamiento de Tolosa decidió cambiar el PR-GI 2007 por la PR-GI 114.

Tolosako udalak ibilbideetan egin beharreko aldaketak zehaztuta helarazi zituen.

El ayuntamiento de Tolosa remitió en un informe las adecuaciones a realizar en los senderos mencionados.

2. TOLOSALDEKO JASANGARRIKO ESPARRUAN ESKUHARTZEA

TURISMO PLANAREN

2. INTERVENCIÓN EN EL MARCO DEL PLAN DE TURISMO SOSTENIBLE DE TOLOSALDEA

Tolosaldeko Turismo Jasangarriaren planeko 2.ardatzeko (Efizientzia energetikoaren hobekuntza) lehen ekintza *“Tolosaldea oinez eta bizikletan”*.

Primera acción *“Tolosaldea a pie y en bicicleta”* del Eje 2 (Mejora de la eficiencia energética) del Plan de Turismo Sostenible de Tolosaldea.

2.1. Helburu nagusiak

- 1- Oinezkotasuna sustatzea.
- 2- Herri ondarea diren herri-bideak berreskuratzea.
- 3- Turismoaren sustapena herriko jarduera ekonomikoei laguntzeko.

2.1. Objetivos generales

- 1- Fomento de la caminabilidad.
- 2- Recuperación de los caminos vecinales como patrimonio municipal
- 3- Fomento del turismo con el objetivo de apoyar a las actividades económicas de los municipios.

2. PUNTUKO ERANSKINA / ANEJO DEL 2º PUNTO

2025IGBA0029

2.2. Esku-hartzearen deskribapena

- Panelen diseinu eta instalazioa
- Ibilbidearen seinaleztapenerako baliza, poste eta gezien diseinu eta instalazioa.
- Udalak egin behar duen homologazioaren tramitazioan laguntza.

2.2. Descripción de la intervención

- Diseño e instalación del panel inicio
- Diseño e instalación de balizas, postes y flechas para la señalización del recorrido.
- Apoyo en la tramitación de la homologación a realizar por el Ayuntamiento.

2.3. Gauzatzeko epea

4 hilabete, kontratua sinatzen denetik aurrera eta betiere 2026ko martxoak 31a baino lehen.

2.3. Plazo de ejecución

4 meses desde la firma del contrato y siempre antes del 31 de marzo de 2026.

3. AURREKONTUA

3. PRESUPUESTO

Exekuzio materiala guztira / <i>Total ejecución material</i>	6.220,00 €
Instalazio eta eskulana guztira / <i>Total instalaciones y mano de obra</i>	4.480,00 €
Homologazioaren tramitazioan laguntza guztira / <i>Total ayuda tramitación homologación</i>	355,00 €
Diseinua guztira / <i>Total desbroces</i>	7.500,00 €
Gutizko partziala / <i>Total parcial</i>	18.555,00 €
% 13 – Gastu orokorrak / <i>13 % Gastos generales</i>	2.412,15 €
% 8 – Mozkina / <i>8 % Beneficio</i>	1.484,40 €
% 21 – BEZa / <i>21 % IVA</i>	4.714,82 €
Aurrekontua guztira / <i>Total presupuesto</i>	27.166,37 €

Lankidetzaz hitzarmen honen HIRUGARREN Tal y como se especifica en el punto f) de la cláusula f) puntuan zehazten den moduan, cláusula TERCERA del presente Convenio de Tolosako udalak Tolosaldea Garatzen, Next Colaboración, el Ayuntamiento de Tolosa

2. PUNTUKO ERANSKINA / ANEJO DEL 2º PUNTO

2025IGBA0029

Funtsek finantzatzen ez dituen gastuetarako, dagokion zatiaren %10 ordainduko dio eta hau da Tolosako udalari ordaintzea dagokion zenbatekoa: gehienez ere, 2.716,64 € BEZ barne.

abonará a Tolosaldea Garatzen, para los gastos no financiados por los Fondos Next, el 10% del coste de la intervención: como máximo, 2.716,64 € IVA incluido.

**4. JARRAIPIEN BATZORDEA ETA
ALDERDIEN ARTEKO
KOMUNIKAZIOAK****4. COMISIÓN DE SEGUIMIENTO Y
COMUNICACIONES ENTRE LAS
PARTES**

Tolosaldea Garatzen Saren eta Tolosako Udalaren artean sinatuta lankidetzahitzarmeneko zazpigarren eta hamargarren klausuletan jarraipen batzordearen eta alderdien arteko komunikazioen nondik norakoak jasotzen diren arren, II. eranskin honen kasurako, ondorengo edukia hartu beharko da kontuan:

Si bien en las cláusulas séptima y décima del Convenio de Colaboración suscrito entre Tolosaldea Garatzen S.A. y el Ayuntamiento de Tolosa se recoge el contenido sobre la Comisión de Seguimiento y las comunicaciones entre las partes, para el caso de este Anexo II, se deberá tener en cuenta el siguiente contenido:

4.1. Jarraipen batzordea**4.1. Comisión de seguimiento**

1.- Lankidetzahitzarmena behar bezala betetzen dela bermatzeko, alde sinatzaileek helburu horietarako aurreikusitako Jarraipen Batzorde batean parte hartuko dute.

1.- Al objeto de garantizar el correcto cumplimiento del Convenio de Colaboración, las partes firmantes participarán en una Comisión de Seguimiento contemplada a estos efectos.

2.- Proiektuen Jarraipen Batzordea honela osatuko da:

2.- Esta Comisión de Seguimiento de los proyectos estará formada de la siguiente manera:

2. PUNTUKO ERANSKINA / ANEJO DEL 2º PUNTO

2025IGBA0029

- Tolosaldea Garatzenen aldetik, proiektuaren arduradun teknikoa eta Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planaren laguntza teknikoan aritzen den teknikaria.
- Udalaren aldetik, proiektuaz arduratzen den ordezkari politikoa eta dagokion saileko teknikaria.
- Por parte de Tolosaldea Garatzen, por el responsable técnico del proyecto y el técnico que forme parte de la asistencia técnica del Plan de Sostenibilidad Turística en Destino.
- Por parte del Ayuntamiento, el representante político encargado del proyecto y el técnico a quien compete el proyecto.

3.- Batzordea hiru hilean behin bilduko da gutxienez, hitzarmen hau sinatzen denetik hasita.

3.- La Comisión se reunirá con carácter ordinario, como mínimo, de forma trimestral desde la firma del presente Convenio.

4.2. Alderdien arteko komunikazioak

4.2. Comunicaciones entre las partes

1.- Hitzarmenaren indarraldian alderdiek posta elektronikoz egin ahal izango dituzte haien arteko komunikazioak, eta honako helbide elektroniko hauetara bidali beharko dira:

1.- Las comunicaciones que realicen las partes entre sí durante la ejecución del Convenio podrán efectuarse por correo electrónico y deberán remitirse a las direcciones electrónicas que a continuación se relacionan:

TOLOSAKO UDALA:
ingurumena@tolosa.eus

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA:
ingurumena@tolosa.eus

TOLOSALDEA GARATZEN:
ilarregi@tolosaldea.eus

TOLOSALDEA GARATZEN:
ilarregi@tolosaldea.eus

2. PUNTUKO ERANSKINA / ANEJO DEL 2º PUNTO

2025IGBA0029

2.- Helbide elektroniko horiek aldatuz gero, bi alderdi sinatzaileek posta elektroniko bidez jakinarazi beharko diete gainerako alderdi sinatzaileei aldaketa.

2.- Ambas partes firmantes deberán comunicar cualquier modificación de las citadas direcciones electrónicas mediante correo electrónico a las demás partes firmantes



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025IGBA0029-2025/09/30eko akta/2025/09/30eko akta ()